



# FISIOTERAPIAKO VII. EUSKADI SARIEN OINARRI OROKORRAK

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak Fisioterapiako VII. Euskadi Sariak iragarri ditu Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-diziplina hori garatzeko egindako lana aitortzeko.

## SARIEN OINARRIAK

1. Espainiako Fisioterapeuten Elkargo Ofizialetako edozeinetan elkargokide diren fisioterapeuta guztiak parte hartu ahal izango dute, baldin eta elkargoarekiko betebeharrak egunean badituzte eta dagokion Elkargo Ofizialaren zehapenik ez badute.

Ezin izango dute parte hartu Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordeko kideek eta saria emango duen Epaimahaia osatzen duten fisioterapeutek.

2. Banaka edo taldeka parte har daiteke.
3. Sarien helburua da lanen bitartez fisioterapiaren aurrerabidea sustatzen duten banakako zein taldeko ekimenak bultzatzea, jarduketa-eremua edozein dela ere.

6 kategoria daude:

- Fisioterapeuta onena
- Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamen onena
- Fisioterapiako ibilbide profesional onena
- Ikerketaren saria
- Gradu amaierako lan onenaren saria
- FISIOLAGUN saria

4. Honela banatuko dira sariak:

- Fisioterapeuta onena: prestakuntzarako beka, 500 €
- Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamen onena: saria eta aitorten-diploma
- Fisioterapiako ibilbide profesional onena: saria eta aitorten-diploma
- Ikerketa-saria: 1.000 euro eta 500 euroko prestakuntza-beka.
- Karrera bukaerako lanik onenaren saria: 300 euroko prestakuntza-beka.
- FISIOLAGUN fisioterapia: saria eta aitorten-diploma

Sariaren titularra, eta, hortaz, sariaren zenbatekoaren hartzekoduna izango da aurkeztutako laneko sinatzaile bakarra edo lehenengo sinatzailea.

Zenbateko horiek indarrean dauden lege-erregelamenduen mende daude, zerga-arlokoak barne.

5. Egileek lan bakarra aurkez dezakete.



# FISIOTERAPIAKO VII. EUSKADI SARIEN OINARRI OROKORRAK

6. Ikerketa- eta/edo kazetaritza-lan bakoitzak originala eta argitaragabea izan behar du, eta honako baldintza hauek bete behar ditu:
  - Fisioterapiako edozein arlori buruzkoak izan daitezke, eta eguneratzea lehenetsiko da, hau da, gure egungo gizartearen beharrei erantzutea.
  - Gaztelaniaz edo euskaraz idatzita egon daitezke.
  - Deialdiaren urtean argitaratu diren edo argitaratzeko berrikusteke dauden (soilik ikerketan lan kasuan) lanak izan daitezke.
  - Ez dira onartuko beste deialdi edo sari batzuetan saritutako lanak.
  - Izenik gabe edo pseudonimoz aukeratuko da. Halaber, gutun-azal batean egilearen datu hauek jaso behar dira: izen-abizenak, egungo helbide osoa, zentroa eta lanpostua, harremanetarako telefono-zenbakiak eta elkargokide-ziurtagiria. Bidaltzailearen erreferentzia bakar gisa, gutun-azalak lana pertsonalizatzeko hautatutako pseudonimoa izan ahalko du, hala badagokio.
7. Sarietara aurkezten den lan bakoitzeko derrigorrezkoa izango da jatorrizkoa bidaltzea, behar bezala koadernatuta (beharrezkoa izatekotan), eta 3 kopia, Din A4 tamainako paperean. Halaber, euskarri informatikoarekin (USB, CDRom, etab.) batera bidaliko da, eta bertan erabilitako artxiboaren/ artxiboen eta programaren/programen izena jarriko da (gogoratu aurkezpenetan ez dela hautagaia identifikatuko duen daturik jarri behar).
8. Ikerketa eta gradu amaierako sarietarako lanak tarte bikoitza erabilia eta orrialde bakarrean idatziko dira. Halaber, gehieneko luzera 50 foliokoa izango da (Din A4) eta letraren tamaina 11 puntukoa eta Arial motakoa izango da. Testuan, grafikoetan eta tauletan tabulazioak, tamaina, iturri mota, azpimarratzea, espazioak, eta abar gehiegi erabiltzea saihestuko da.
9. Honako hau izango da lanek jarraitu beharreko egitura:
  - Laburpena eta gako-hitzak
  - Sarrera
  - Materiala eta metodoak
  - Emaitzak
  - Eztatanda
  - Ondorioak
  - Erreferentzia bibliografikoak
10. Erreferentzia bibliografikoak hurrenez hurren zenbakitu beharko dira, testuan lehen aldiz aipatzen diren hurrenkeran, eta parentesi arteko zenbaki arabiarren bidez identifikatu beharko dira. Erreferentzia pertsonalak edo argitaratu ez diren bestelako oharrak saihestuko dira. Erreferentzia horiek azken atalean aipatuko dira, erabilitako hurrenkeran eta Index Medicusean erabilitako laburdura-sistema erabiliz.
11. Fisioterapeuta onena, Fisioterapiako ibilbide profesional onena, Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamen onena.



# FISIOTERAPIAKO VII. EUSKADI SARIEN OINARRI OROKORRAK

2022an fisioterapiaren barruan eredu izan diren fisioterapeutak proposatu nahi badituzu, aurkezpena formalizatu beharko duzu jarraian adierazten den moduan:

- Proposatutako pertsonaren izen-abizenak.
- Proposatutako pertsonaren enpresaren izena.
- 2022an nabarmendutako merezimenduen eta balioen argumentua.
- Curriculum vitae.
- ***Oharra: ez dira baliozkoak izango eskatutako dokumentazioa atxikitzen ez duten proposamenak.***

Fisioterapiaren barruko ibilbide profesionalean/lanekoan jarraitu beharreko erreferentzia edo eredu bat izan diren fisioterapeutak proposatu nahi badituzu, aurkezpena formalizatu beharko duzu jarraian adierazten den moduan:

- Proposatutako pertsonaren izen-abizenak.
- Proposatutako pertsonaren enpresaren izena.
- Nabarmendutako merezimenduen eta balioen argumentua.
- Curriculum vitae.
- ***Oharra: ez dira baliozkoak izango eskatutako dokumentazioa atxikitzen ez duten proposamenak.***

2022an fisioterapiaren barruan erreferentzia bat izan den komunikazio-proposamen bat (kazetaritza-artikulua, irrati-erreportajea, telebista-erreportajea edo sentsibilizazio-, komunikazio- edo kontzientziazio-kanpaina) proposatu nahi baduzu, aurkezpena formalizatu beharko duzu jarraian adierazten den moduan:

- Egileen izen-abizenak.
- Argitaratu den hedabidearen izena, edo, hala badagokio, komunikazio kanpaina sustatu duen erakundearena.
- Komunikazio-pieza formatu digitalean
- ***Oharra: ez dira baliozkoak izango eskatutako dokumentazioa atxikitzen ez duten proposamenak.***

FISIOLAGUN kategorian fisioterapiaren irudia, zerbitzuak eta kalitatea indartu dituzten eta diziplina garatzeko ekarpena egin duten pertsonak, entitateak, enpresak eta mota guztietako erakundeak proposatu nahi badituzu. Xedea fisioterapiaren bidez osasuna hedatu eta sustatzeko estrategiek hobekuntza aitortzea da, arlo guztietan

- Enpresa, pertsona edo erakundearen izena.
- Enpresa, pertsona edo erakundearen jarduera.
- Nabarmendutako merezimenduen eta balioen argumentua.
- Oharra: ez dira baliozkoak izango eskatutako dokumentazioa atxikitzen ez duten proposamenak.



# FISIOTERAPIAKO VII. EUSKADI SARIEN OINARRI OROKORRAK

12. Lanak eta proposamenak aurkezteko epea 2022ko azaroaren 4an amaituko da. Epe barrukotzat joko dira aipatutako mugen barruko data duten posta-ziurtagiria duten lanak.k.
13. Lan eta proposamenak pertsonalki entregatuko dira Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren Idazkaritzan, edo posta ziurtatu bidez bidaliko dira helbide honetara, hartu agiriarekin:

**C/ Ibarrekolanda 15 - 48014 Bilbao**

**Kanpoko gutun-azalean hau idatziko da: FISIOTERAPIAKO VII. EUSKADI SARIAK parte hartzeko modalitatea adieraziko da**

14. Epaimahaiak 2022ko abenduaren 2an emango du epaia, eta 2022ko abenduaren 17an argitaratuko da, ohiko batzarrarekin batera. (Data hori alda daiteke epaimahaiko kideen beharren arabera).

Irabazleei aldeztetik jakinaraziko zaie egileari edo lanari atxikitako gutun-azal itxian jasotako zerrendako lehen egileari zuzendutako gutunaren eta Elkarberri aldizkariaren bidez.

EFEOk eskubidea izango du emandako sariak hedatzeko, beste bitartekoren baten bidez.

15. Epaimahaia EFEOk izendatuko du, eta gehienez ere 7 kidek eta gutxienez 3k osatuko dute: irakaskuntza-, laguntza- eta ikerketa-arlokoak eta Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialekoak izango dira, betiere ez badira tutoreak edo lankideak ikerketa-proiektuan.

16. Epaimahaiaren epaia apelaezina eta ezeztazina izango da, eta saria hutsik gera daiteke osorik edo partzialki, epaimahaiak uste badu aurkeztutako lanek ez dutela saria jasotzeko kalitate zientifikoa. Epaimahaiko kide guztiak boto-eskubidea izango dute. Erabakiak epaimahaiko kideen botoen gehiengo sinplearekin hartuko dira. Berdinketa egonez gero, presidentearen botoak ebatziko du.

Eztabaidak sekretuak izango dira.

17. EFEOk eskubidea izango du saritutako lanak aldizkarian argitaratzeko (osorik edo partzialki), baita lehiaketan aurkeztutako lanak ere, baldintzak betetzen badituzte. Edonola ere, jatorrizko egileak aipatuko dira beti, eta aldeztetik jakinaraziko zaizkie egileei beharrezko aldaketak, hala badagokio.

18. Halaber, EFEOk eskubidea izango du jasotako lanak modu orokorrean erabiltzeko elkargoaren xedeetarako, eta, ondorioz edozein bitartekoren bidez hedatzeko interesgarriak izan daitezkeen kopiak egin ahalko ditu.

Jasotako datu pertsonal guztiak gordeko dira, Sarietan parte hartzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legea Organikoan (DBLO-EDB) eta hura garatzen duen araudian xedatutakoarekin bat. Datu horiek tratamenduaren arduraduna EFEO izango da.



# FISIOTERAPIAKO VII. EUSKADI SARIEN OINARRI OROKORRAK

19. Saririk jaso ez duten lanak jaso ahal izango dira, idatziz eskatu ondoren, epaiaren hurrengo egunetik aurrera eta hurrengo 60 egunetan zehar. Epe hori igaro ondoren, EFEOk ale bat gordeko du, eta gainerako kopiak suntsitu egingo dira.
20. Sarian parte hartzean berekin dakar oinarri hauek osorik onartzea.